EGK-k agerraldia egin du Eusko Legebiltzarrean Etxebizitza hizpide

- *Etxebizitza, Lurzoru eta Hirigintza arloko Premiazko Neurriei buruzko Lege proposamenari ekarpenak egin dizkio EGK-k*

Bilbon, irailaren 9an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Euskadiko Legebiltzarrean agerraldia egin du gaur goizean, Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko premiazko Neurrien lege proposamenaren inguruan ekarpenak egiteko.
Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea den Iratxe Uriartek nabarmendu duenez, Euskadin bizi den bizitoki-larrialdiak eragin larria du gazteengan eta haien emantzipazioan. Hala ere, Etxebiden inoiz baino eskatzaile gehiago izateak erakusten du etxebizitza ez dela gazteen edo bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen arazoa soilik. Iratxe Uriartek adierazi du Euskal gazteek ziurtasunak eta ausardia politikoa behar dituztela. Egoera salatzearekin ez da nahikoa, eta neurri zehatzak hartu behar dira. EGKtik azpimarratu dute "ezin dela onartu etxebizitza-politiketan galdutako beste hamarkada bat".

Hauek dira EGK-ko etxebizitza-arloak etxebizitzarako, lurzorurako eta hirigintzarako egiten dituen ekarpenak:

- Lurzoruaren erreserba estrategikoaren harira, proposamenak bildutako aldaketek epe luzerako plangintzak egitea ahalbidetzen dutela.
- EGK-k positiboki baloratzen du etxebizitza babestuaren sustapenean malgutasun handiagoa sartzeko aukera, ehunekoa % 60tik % 75era bitartekoa izatea ahalbidetuz, horrek abantaila garrantzitsuak ekar ditzakeelako. Hala ere, ezinbestekotzat jotzen du lege-proiektuak argi eta garbi zehaztea egungo estandarrarekiko edozein murrizketa justifikatuko luketen irizpideak.

- EGK-k positibotzat jo du zuzkidura-bizitokien garapena erraztea, bizitoki eskuragarrien eskaintza berehala zabaltzen duelako eta irtenbide berritzaileak errazten dituelako.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak urteak daramatza gazteen eskubideen eta hauek merezi duten bizitza duinaren alde borrokan. Ezinbestekoa da eskubide guztiak behar bezala betetzen direla aldarrikatzea.
EGKtik aurrera ateratzen den diskurtsoa, proiektu, txosten eta egunerokotasuneko lana sare sozialetan zein webgunean daude eskuragarri.

Informazio gehiago:
komunika@egk.eus
688675932 (Mirene)